TOLOSAKO UDALA

2026DESA0001– 2026IPLE0008

Original redactado en euskera

MARIA CARMEN CONTRERAS GOIKOETXEA, Tolosako udal idazkari akzidentala.

NEUK ZIURTATUA:

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita seiko irailaren hogeita lauean, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

MARIA CARMEN CONTRERAS GOIKOETXEA, secretaria municipal accidental del Ayuntamiento de Tolosa.

CERTIFICO:

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día veinticuatro de septiembre de dos mil veintiséis adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

2. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, BEDAIO TOLOSAKO UDALERRITIK BEREIZI ETA AMEZKETAKO UDALERRIARI ERANSTEKO, UDAL-BARRUTIAREN ALDAKETA.

PUNTO 2. APROBAR, EN SU CASO, LA MODIFICACIÓN DEL TÉRMINO MUNICIPAL PARA LA SEGREGACIÓN DE BEDAIO DEL MUNICIPIO DE TOLOSA Y SU INCORPORACIÓN AL MUNICIPIO DE AMEZKETA

ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN 2026KO IRAILAREN 16KO IRIZPENA

DICTAMEN DE LA COMISION INFORMATIVA DE ORGANIZACION DE FECHA DE 16 DE SEPTIEMBRE

AURREKARIAK

1. Bedaio auzoaren ezaugarriak eta Bedaioko auzotarren nahia

Bedaio, 12,1 Km²-ko azalera duen landa-auzo bat da. Administratiboki Tolosa udalerriari dagokion auzoa bada ere, ez dauka inongo muga geografikorik Tolosa udalerriaren gainerako lurraldearekin eta Tolosako hirigunetik 17km-ra dago. Distantzia ez da fisikoa bakarrik, landa-eremuan kokatutako auzoa izanik, Bedaio auzoak ezaugarri oso ezberdinak ditu Tolosako hirigunearekiko, hirigintza aldetik, jarduera sozio-

ANTECEDENTES

1. Características del barrio de Bedaio y voluntad vecinal de Bedaio

Bedaio es un barrio rural con una superficie de 12,1 km². Si bien se trata del barrio que administrativamente pertenece al municipio de Tolosa, no tiene ningún límite geográfico con el resto del territorio del municipio de Tolosa, y se encuentra a unos 17 km del núcleo urbano de Tolosa. La distancia no sólo es física, sino que al ser un barrio rural, el barrio de Bedaio presenta características muy diferentes en cuanto a urbanismo, actividad socio-

ekonomikoarekiko, maila sozialean eta eguneroko bizi-ohituretan ere.

Bedaio Tolosa udalerritik bereiztu eta Amezketara eransteko nahia adierazi izan diete bedaiotarrek Tolosako Udalari eta Amezketako Udalari. Aukerarik naturalena hori dela iruditzen zaie auzoak dituen beharrei modu egokiagoan erantzuteko, udal zerbitzuen antolaketa hobetzeko eta, etorkizunera begira, garapen iraunkor eta integral baterako bide-lerroak eraikitzeko.

2. Araubide juridikoa

Udalerri-aldaketa hori izapidetzeko araubide juridikoa Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauan jasotzen da, abenduaren 22ko 5/2025 Foru Arauak egindako aldaketekin. Foru arau horrek ezartzen ditu udal-barrutiaren aldaketa egiteko baldintzak, prozedura eta espedienteak bete beharreko betekizunak, eta araubide horren arabera izapidetu beharko da udal-barrutiaren aldaketarako espedientea.

3. Aurrez egindako ibilbidearen urratsak

Udalerri-aldaketaren bideragarritasuna aztertzeko koordinazio-batzordea

Lehen fase batean, koordinazio-batzorde bat eratu zen, Bedaioko auzotarren ordezkaritza batek, Tolosako eta Amezketako udal gobernuetako ordezkariek eta bi udaletako idazkariek osatua. Batzorde horren bidez prozesuaren lehen urratsak egin ziren, besteak beste, SIADECO Ikerketa Elkarteari enkargatutako 2/2003 Foru Arauak eskatzen dituen azterlan teknikoen jarraipena egiteko eta Bedaio auzoaren udalerri aldaketaren bideragarritasuna aztertzeko.

económica, nivel social y hábitos de vida cotidianos respecto al centro urbano de Tolosa.

Los/as bedaiotarras han manifestado al Ayuntamiento de Tolosa y al Ayuntamiento de Amezketa su deseo de separarse del municipio de Tolosa e incorporarse a Amezketa. Consideran que esta es la opción más natural para responder de forma más adecuada a las necesidades del barrio, mejorar la organización de los servicios municipales y avanzar hacia un desarrollo sostenible e integral de cara al futuro.

2. Régimen jurídico

El régimen jurídico de la tramitación de este cambio de municipio viene recogido en la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de los Distritos Municipales de Gipuzkoa, con las modificaciones introducidas por la Norma Foral 5/2025, de 22 de diciembre. Dicha Norma Foral establece las condiciones, procedimiento y requisitos que debe cumplir el expediente para proceder a la modificación del término municipal, debiendo tramitarse el expediente de modificación del término municipal conforme a dicho régimen.

3. Pasos del recorrido realizado anteriormente

Comisión de coordinación para el estudio de viabilidad del cambio de municipio

En una primera fase, se constituyó una comisión de coordinación formada por una representación de los/as vecinos/as de Bedaio, representantes de los gobiernos municipales de Tolosa y Amezketa y los/as secretarios de ambos ayuntamientos. A través de esta Comisión se realizaron los primeros pasos del proceso para, entre otros, realizar el seguimiento de los estudios técnicos que exige la Norma Foral 2/2003 encargada a la Asociación de Investigación SIADECO y analizar la viabilidad del cambio de municipio del barrio de Bedaio.

TOLOSAKO UDALA

Egindako azterlan teknikoen ondorioak

SIADECO Ikerketa Elkarteak egindako azterlanean, 2/2003 Foru Arauak udal-barrutiaren aldaketa justifikatzeko eskatzen dituen alderdi guztiak aztertu dira.

Lehenik, egiaztatu da Bedaio Tolosako gainerako lurraldearekiko jarraitutasunik gabeko biztanle-gune bereizia dela, eta haren kokapen geografikoak eta harreman soziofuntzionalek lotura estuagoa dutela Amezketarekin. Halaber, udal-jabetzako ondarearen egoera ere aztertu da.

Bigarrenik, udalerri-aldaketak Tolosako eta Amezketako udaletan izango lukeen eragin ekonomikoa eta administratiboa aztertu dira. Horretarako, Bedaion ematen diren udal-zerbitzu nagusien kostua, etorkizuneko inbertsioen eragina, Bedaioren udalerri aldaketak udal bakoitzaren diru-sarreretan izango lukeen eragina eta udal-zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko gaitasuna baloratu dira.

Azterlan horien ondorioek erakusten dute udalerri-aldaketa ekonomikoki eta administratiboki bideragarria dela bi udalerrientzat. Tolosako Udalaren kasuan, aurreikusitako eragin ekonomikoa oso mugatua da eta ez du kalterik eragiten udalaren funtzionamenduan eta zerbitzu publikoen antolaketan. Amezketako Udalaren kasuan, berriz, udal-zerbitzuak Bedaio auzoan ere behar bezala emateko eta etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko gaitasun ekonomikoa dituela jasotzen du Siadeco Ikerketa Elkartearen txostenak.

Era berean, azterlan teknikoek ondorioztatzen dute udalerri-aldaketak ez diela kalterik eragiten ez Tolosako ez Amezketako interes orokorrei, eta Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen 2/2003 Foru Arauak udalerri-aldaketa

Conclusiones de los estudios técnicos realizados

En el estudio realizado por la Sociedad de Investigación SIADECO se han analizado todos los aspectos exigidos por la Norma Foral 2/2003 para justificar la modificación del término municipal.

En primer lugar, se constata que Bedaio es un núcleo de población diferenciado y sin continuidad con el resto del territorio de Tolosa, cuya ubicación geográfica y relaciones sociofuncionales están más relacionadas con Amezketa. Asimismo, se ha analizado la situación del patrimonio de propiedad municipal.

En segundo lugar, se analiza el impacto económico y administrativo del cambio de municipio en los ayuntamientos de Tolosa y Amezketa. Para ello, se ha valorado el coste de los principales servicios municipales que se prestan en Bedaio, el impacto de las inversiones futuras, el impacto que el cambio de municipio de Bedaio tendría en los ingresos de cada ayuntamiento y la capacidad de garantizar la continuidad de los servicios municipales.

Las conclusiones de estos estudios muestran la viabilidad económica y administrativa del cambio de municipio para ambos municipios. En el caso del Ayuntamiento de Tolosa, la incidencia económica prevista es muy limitada y no afecta negativamente al funcionamiento y organización de los servicios públicos municipales. En el caso del Ayuntamiento de Amezketa, el informe de la Sociedad de Investigación SIADECO recoge la capacidad económica para prestar adecuadamente los servicios municipales también en el barrio de Bedaio y hacer frente a futuras inversiones.

Asimismo, los estudios técnicos concluyen que el cambio de municipio no afecta a los intereses generales de Tolosa ni de Amezketa, y que se cumplen los principales requisitos establecidos por la Norma Foral 2/2003, reguladora de los

sustatzeko ezartzen dituen baldintza nagusiak betetzen direla.

Erakunde arteko Mahaia

Azterlan teknikoen garapenarekin batera, prozesuaren berri eman zitzaien Tolosako eta Amezketako udalbatzetako talde politikoei eta Bedaioren udalerri-aldaketarako Erakunde arteko Mahaia eratu zen, bi udaletako udalbatzak osatzen dituzten alderdi politiko guztietako ordezkariekin eta Bedaioko auzotarren ordezkaritza batekin osatua. Mahai horren eginkizuna izan da prozesuaren gidaritza partekatua bermatzea, erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, egindako lan teknikoak kontrastatzea eta Amezketa, Bedaio eta Tolosako herritarrak informatu eta ekarpenak jasotzeko prozesuak eta komunikazio instituzionala koordinatzea.

Herritarren partaidetzarako saioak

Herritarrak informatu eta ekarpenak jasotzeko helburuarekin, parte-hartze eta kontraste saioak antolatu ziren, 2026ko ekainaren 9an Bedaion, 2026ko ekainaren 22an Tolosan eta 2026ko ekainaren 23an Amezketan. Saio horietan, udalerri-aldaketaren arrazoiak, aplikatu beharreko araubide juridikoa, egindako azterlan teknikoen ondorio nagusiak eta aurreikusitako administrazio-prozedura azaldu ziren, herritarrek, galderak egiteko eta iritziak nahiz ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Horrez gain, Tolosako Udalak Erabaki herritarren parte-hartzerako plataformaren bidez entzuketa-prozesu osagarri bat jarri zuen abian. Plataforma horretan udalerri-aldaketari buruzko dokumentazioa eta Siadecok egindako azterlanaren laburpena herritarren eskura jarri ziren, eta herritarrek 2026ko uztailaren 15era arte galderak, iruzkinak eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Era berean, Tolosako Udalak jasotako ekarpenei erantzuteko

términos municipales de Gipuzkoa, para promover el cambio de municipio.

Mesa Interinstitucional

Paralelamente al desarrollo de los estudios técnicos, se informó del proceso a los grupos políticos de las corporaciones municipales de Tolosa y Amezketa, y se constituyó la Mesa Interinstitucional de cambio de municipio de Bedaio, integrada por representantes de todos los partidos políticos que conforman las corporaciones municipales de ambos ayuntamientos y una representación de los/as vecinos/as de Bedaio. Esta mesa ha tenido como misión garantizar el liderazgo compartido del proceso, promover la coordinación interinstitucional, contrastar los trabajos técnicos realizados y coordinar los procesos de información y recogida de aportaciones con la ciudadanía de Amezketa, Bedaio y Tolosa, así como la comunicación institucional.

Sesiones de participación ciudadana

Con el fin de informar a la ciudadanía y recoger aportaciones, se organizaron sesiones de participación y contraste el 9 de junio de 2026 en Bedaio, el 22 de junio de 2026 en Tolosa y el 23 de junio de 2026 en Amezketa. En dichas sesiones se expusieron los motivos del cambio de municipio, el régimen jurídico aplicable, las principales conclusiones de los estudios técnicos realizados y el procedimiento administrativo previsto para que la ciudadanía pudiera formular preguntas, opiniones y aportaciones.

Además, el Ayuntamiento de Tolosa puso en marcha un proceso complementario de escucha a través de la plataforma de participación ciudadana *Erabaki*. En esta plataforma se puso a disposición de la ciudadanía la documentación relativa al cambio de municipio y el resumen del estudio realizado por Siadeco, y la ciudadanía tuvo la oportunidad de formular preguntas, comentarios y aportaciones hasta el 15 de julio de 2026. Asimismo, el Ayuntamiento de Tolosa se

konpromisoa hartu zuen, Erakunde arteko Mahaiaren bitartez.

Udal-barrutiaren aldaketarako espedientearen izapidetzea

Aurretiazko azterlan teknikoak, erakunde arteko kontrastea eta herritarren informazio- eta parte-hartze jarduketak egin ondoren, prozesua udal-barrutiaren aldaketarako espedientearen izapidetze formalari ekiteko fasera iritsi da. Horretarako, 2/2003 Foru Arauaren 8.1.b) artikuluari jarraikiz, Tolosako eta Amezketako udalek udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko ekimena beren Osoko Bilkuren bidez hartzea lehenetsi du Erakunde arteko Mahaiak.

Ekimena udalena izanda, 2/2003 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluan aurreikusitako aldaketak ukitutako udalen hasierako erabakia ez da beharrezkoa. Horrenbestez, Osoko Bilkurek udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzeko erabakiak espedientearen hasierako onarpena ere bere baitan hartuko du, eta espedientea 8.2.b) artikuluan aurreikusitako jendaurreko erakustaldiaren izapidera igaro ahal izango da.

TXOSTENAREN XEDEA

Txosten honen xedea da Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzeari, espedienteari hasierako onarpena emateari eta jendaurreko erakustaldiaren izapidea abiarazteari estaldura juridikoa ematea, eta Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak hartu beharreko erabakiaren oinarri juridikoak zehaztea.

comprometió a dar respuesta a las aportaciones recibidas, a través de la Mesa Interinstitucional.

Tramitación del expediente de modificación de término municipal

Una vez realizados los estudios técnicos previos, el contraste interinstitucional y las actuaciones de información y participación ciudadana, el proceso ha llegado a la fase de inicio de la tramitación formal del expediente de modificación del término municipal. Para ello, de acuerdo con el artículo 8.1.b) de la Norma Foral 2/2003, la Mesa Interinstitucional ha priorizado que los Ayuntamientos de Tolosa y Amezketa adopten la iniciativa para promover la modificación del término municipal a través de sus Plenos.

Siendo la iniciativa municipal, es innecesaria la decisión inicial de los ayuntamientos afectados por la modificación, prevista en el artículo 8.2.a) de la Norma Foral 2/2003. En consecuencia, el acuerdo plenario por el que se adopte la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal incluirá la aprobación inicial del expediente, que podrá ser sometido al trámite de información pública previsto en el artículo 8.2.b).

OBJETO DEL INFORME

El presente informe tiene por objeto dar cobertura jurídica a la adopción de la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal, a la aprobación inicial del expediente y al inicio del trámite de información pública para separarlo del municipio de Bedaio Tolosa e incorporarlo al municipio de Amezketa; así como determinar los fundamentos jurídicos del acuerdo a adoptar por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa.

A tal efecto, el informe analizará la competencia y requisitos para adoptar la iniciativa municipal, las consecuencias de su adopción por el propio

Horretarako, txostenean aztertuko dira udal-ekimena hartzeko eskumena eta baldintzak, ekimena Udalak berak hartzeak 2/2003 Foru Arauaren 8. artikuluaren arabera dituen ondorioak, eta erabaki horren ondoren espedientea jendaurrean jartzeko bete beharreko izapidea.

Txosten honen xedea ez da udal-barrutiaren aldaketaren egokitasun teknikoa, ekonomikoa edo soziala berriro baloratzea. Alderdi horiek espedienteari erantsitako memoria eta gainerako azterlan teknikoetan aztertzen dira, eta Osoko Bilkurak hartu beharreko erabakiaren oinarri diren espedienteko dokumentazioaren parte dira.

Txosten hau egiten da, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginak (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoak) 54.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Espedientearen izaera juridikoa (2/2003 Foru Arauaren 5. artikulua)

Espediente honen xedea da Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa izapidetzea.

Horrenbestez, espediente honen izaera juridikoa Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 5. artikuluaren 1.c) apartatuan aurreikusitako udal-barrutiaren aldaketa motaren barruan kokatzen da, hau da, udalerri bateko lurralde-zati bat hartatik bereizi eta beste udalerri bati eranstea.

Era berean, espediente honi aplikagarriak zaizkio 5. artikuluan ezarritako gainerako beharkizun orokorrak; bereziki, ukitutako udal barrutiek mugakide izan behar dutela, udal-

ayuntamiento de acuerdo con el artículo 8 de la Norma Foral 2/2003, y el trámite de información pública que debe seguir a dicha decisión.

No es objeto de este informe volver a valorar la idoneidad técnica, económica o social de la modificación del término municipal. Estos aspectos han sido analizados en la memoria y demás estudios técnicos incorporados al expediente, y forman parte de la documentación del expediente que sustenta la decisión a adoptar por el Pleno.

El presente informe se emite en virtud de lo establecido en el artículo 54.1.b) del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero. Naturaleza jurídica del expediente (art. 5 Norma Foral 2/2003)

El objeto del presente expediente es la tramitación de la modificación del término municipal para segregar Bedaio del municipio de Tolosa, y agregarlo al municipio de Amezketa.

Por lo tanto, la naturaleza jurídica del presente expediente se enmarca dentro del tipo de modificación del término municipal previsto en el apartado 1.c) del artículo 5 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de los Términos Municipales de Gipuzkoa; es decir, segregar una parte del territorio de un municipio, y agregarlo a otro.

Asimismo, son de aplicación al presente expediente los demás requisitos de carácter general establecidos en el artículo 5, y en particular, la condición de colindante de los términos municipales afectados; la circunstancia de que la alteración del término

barrutiaren aldaketak ondasun, eskubide eta betebeharren gaineko ondorioak dituela, eta aldaketak ezin duela Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugarik aldatu.

Ondorioa: Osoko Bilkurak aztertu behar duen udal-ekimena 2/2003 Foru Arauaren 5. artikuluaren 1.c) apartatuan aurreikusitako udal-barrutiaren aldaketa mota baten barruan kokatzen da, eta, ondorioz, Foru Arau horretan ezarritako araubide juridikoa aplikatu behar zaio, eta espedientean egiaztatu eta garatu beharko dira 5. artikuluan ezarritako beharkizun orokorrak.

Bigarrena. Udalaren ekimena, Osoko Bilkuraren eskumena eta espedientearen hasierako onarpena (2/2003 Foru Arauaren 8.1.b) eta 8.2.a) artikuluak)

Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 8. artikuluak arautzen ditu udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko ekimena nork har dezakeen eta horretarako bete beharreko prozeduraren urratsak.

Artikulu horren 1. apartatuaren b) letraren arabera, udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko ekimena interesdun udalek har dezakete, eta kasu horretan erabakia Udal Batzarrak hartu beharko du, 5/2025 Foru Arauak ezarritako aldaketaren arabera korporazioko legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin hartua.

Ondorioa: 2/2003 Foru Arauaren 8.1.b) eta 8.2.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, Tolosako Udalaren Osoko Bilkurari dagokio Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzea, korporazioko legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin. Ekimena Udalak berak hartzen duenez, erabaki horrek espedientearen hasierako onarpena ere bere baitan hartzen du, eta ez da 8.2.a) artikuluan aurreikusitako beste hasierako erabaki

municipal afecta a bienes, derechos y obligaciones; y la imposibilidad de alterar la delimitación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Conclusión: la iniciativa municipal que ha de ser examinada por el Pleno se enmarca dentro de un tipo de modificación del término municipal prevista en el apartado 1.c) del artículo 5 de la Norma Foral 2/2003, por lo que le resulta de aplicación el régimen jurídico establecido en dicha Norma Foral, debiendo acreditarse y desarrollarse en el expediente los requisitos generales establecidos en el artículo 5.

Segundo. Iniciativa municipal, competencia del Pleno y aprobación inicial del expediente (art. 8.1.b) y 8.2.a) Norma Foral 2/2003)

El artículo 8 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de los Términos Municipales de Gipuzkoa, regula el procedimiento a seguir para adoptar la iniciativa de promoción del cambio de término municipal.

De acuerdo con la letra b) del apartado 1 de dicho artículo, la iniciativa para promover la modificación del término municipal puede ser adoptada por los ayuntamientos interesados, en cuyo caso el acuerdo deberá ser adoptado por el Pleno municipal, con el voto favorable de la mayoría absoluta de los/as miembros legales de la Corporación conforme a la modificación establecida en la Norma Foral 5/2025.

Conclusión: de conformidad con lo establecido en los artículos 8.1.b) y 8.2.a) de la Norma Foral 2/2003, corresponde al Pleno del Ayuntamiento de Tolosa adoptar la iniciativa municipal para promover la alteración del término municipal para separarlo del municipio de Bedaio de Tolosa e incorporarlo al municipio de Amezketa, con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación. Dado que la iniciativa se adopta por el propio Ayuntamiento, dicho acuerdo incluye la

bereizirik hartu behar. Horrenbestez, espedientea 8.2.b) artikuluan aurreikusitako jendaurreko erakustaldiaren izapidera igaro daiteke.

Hirugarrena. Jendaurreko erakustaldia eta ondorengo izapideak (2/2003 Foru Arauaren 8.2.b), c), d) eta e) artikuluak)

Udal-ekimena hartzearekin batera, Osoko Bilkurak une horretan formalizatutako espedienteari eta hura osatzen duen dokumentazioari hasierako onarpena emango die, eta dokumentazio hori jendaurrean jartzea erabakiko du. Jendaurreko erakustaldiaren xede izango dira, beraz, Osoko Bilkuraren erabakia hartzeko unean espedientean txertatuta dauden eta udal-barrutiaren aldaketaren oinarri diren hurrengo dokumentuak eta txostenak:

- Planoa

- Bedaio auzoa Tolosatik bereiztu eta Amezketara eransteko prozesuaren justifikazio txostena .Zehazki, 8. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako hurrengo administrazio-izapideak bete beharko dira.
- Espedientea jendaurrean jarri beharko da, gutxienez hogeita hamar egunez, udaletxeko iragarki-taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta, gutxienez, zabalkunderik handienekoak diren egunkarietako batean argitaratuz.
- Jendaurreko epea amaitutakoan, ukitutako udalek aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta udal-barrutiaren aldaketaren inguruko erabakia hartu beharko dute, udalek ekimena hartzeko eskatutako gehiengo berarekin.
- Ondoren, ukitutako hautesleen iritzi ez-loteslea jaso beharko da, foru arauak aurreikusitako moduan.

aprobación inicial del expediente, sin que deba adoptarse ningún otro acuerdo de inicio diferenciado de los previstos en el artículo 8.2.a). En consecuencia, el expediente puede pasar al trámite de información pública previsto en el artículo 8.2.b).

Tercero. Información pública y trámites posteriores (art. 8.2.b), c), d) y e) de la Norma Foral 2/2003)

Simultáneamente a la adopción de la iniciativa municipal, el Pleno aprobará inicialmente el expediente formalizado en ese momento y la documentación que lo conforma, y acordará su exposición al público. Serán, por tanto, objeto de información pública los siguientes documentos e informes que, en el momento de la adopción del acuerdo plenario, forman parte del expediente y constituyen la base de la modificación del término municipal:

- Plano
- Informe justificativo del proceso de segregación del barrio de Bedaio del municipio de Tolosa, y su incorporación a Amezketa. Se deberán seguir los siguientes trámites administrativos, establecidos en el apartado 2 del artículo 8.

- El expediente se someterá a información pública durante un plazo no inferior a treinta días, mediante su publicación en el tablón de anuncios del ayuntamiento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor difusión.
- Transcurrido el plazo de información pública, los ayuntamientos afectados deberán resolver las reclamaciones presentadas, y acordar la modificación del término municipal con la misma mayoría exigida por los ayuntamientos para la adopción de la iniciativa.
- A continuación, deberá recabarse la opinión no vinculante de los/as electores afectados, en los términos previstos en la Norma Foral.

- Eta, azkenik, 11. artikuluan zerrendatutako dokumentazio guztiarekin osatutako espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali beharko zaio, hark dagokion ebazpena eman dezan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ondorioa: Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak eta Amezketako Udalaren Osoko Bilkurak udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko ekimena hartzen badute, erabaki hori hasierako onespenaren baliokide izanik, espedientea jendaurrean jartzeko izapidea abiarazi ahal izango da. Ondoren, 2/2003 Foru Arauaren 8.2.c), d) eta e) artikuluetan aurreikusitako izapideak egin beharko dira: jendaurreko erakustaldian aurkeztutako erreklamazioen ebazpena eta udalaren behin betiko edo amaierako erabakia, bereizi nahi den lurralde-zatiko hautesleen iritzi ez-loteslea jasotzea eta, espedientea 11. artikuluan eskatutako dokumentazioarekin osatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, behin betiko ebatz dezan.

-Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko proposamena Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 5. artikuluaren 1.c) apartatuan aurreikusitako udal-barrutiaren aldaketa motaren barruan kokatzen da, hau da, udalerri bateko lurralde-zati bat hartatik bereizi eta beste udalerri bati eranstea. Ondorioz, Foru Arau horretan ezarritako araubide juridikoa aplikatu behar zaio.

- 2/2003 Foru Arauaren 8. . 1.b) artikuluaren arabera, Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak eskumena du Bedaio auzoaren lurraldea Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzeko.

- Y, por último, el expediente con toda la documentación relacionada en el artículo 11 deberá ser remitido a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que ésta, de acuerdo con la normativa vigente, dicte la resolución que proceda.

Conclusión: si el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa y el Pleno del Ayuntamiento de Amezketa adoptan la iniciativa de promover la modificación del término municipal, siendo este acuerdo equivalente a la aprobación inicial, podrá iniciarse el trámite de información pública del expediente. Posteriormente, se deberán realizar los trámites previstos en el artículo 8.2.c), d) y e) de la Norma Foral 2/2003: resolución de las reclamaciones presentadas durante el periodo de información pública y acuerdo municipal definitivo o final, recepción de la opinión no vinculante de los/as electores de la parte territorial que se pretende segregar, y remisión del expediente completado con la documentación exigida en el artículo 11 a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su resolución definitiva.

- La propuesta de segregación de Bedaio del municipio de Tolosa para su incorporación al municipio de Amezketa se enmarca dentro del tipo de modificación del término municipal previsto en el apartado 1.c) del artículo 5 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de los Términos Municipales de Gipuzkoa; es decir, segregar una parte del territorio de un municipio y agregarlo a otro. En consecuencia, le es de aplicación el régimen jurídico establecido en la citada Norma Foral.

- El artículo 8.1.b) de la Norma Foral 2/2003 atribuye al Pleno del Ayuntamiento de Tolosa la competencia para adoptar la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal para segregar el territorio del barrio de Bedaio del municipio de Tolosa e incorporarlo al municipio de Amezketa.

- En el supuesto de que el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa y el Pleno del Ayuntamiento de Amezketa adopten la

- Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak eta Amezketako Udalaren Osoko Bilkurak udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko ekimena hartzen badute, erabaki hori hasierako onespenaren baliokide izanik, espedientea jendaurrean jartzeko izapidea abiarazi ahal izango da.

Hasierako onarpen horrek ez du udal-barrutiaren aldaketa behin betiko onartzea esan nahi; haren ondorioa da espedientearen izapidetzearekin jarraitzea eta 8.2.b) artikuluan aurreikusitako jendaurreko erakustaldiaren izapidera igarotzea.

- Horrenbestez, Osoko Bilkurak udal-ekimena hartu eta espedienteari hasierako onarpena emanez gero, formalizatutako espedientea jendaurrean jarri beharko da gutxienez hogeita hamar egunez, 2/2003 Foru Arauaren 8.2.b) artikuluan ezarritako moduan. Jendaurreko erakustaldia amaitutakoan, prozedurak 8.2.c), d) eta e) artikuluetan aurreikusitako izapideekin jarraituko du: ukitutako udalek udal-barrutiaren aldaketa bidezkoa den ala ez erabakiko dute (udalaren behin betiko edo amaierako erabakia), jendaurreko erakustaldian aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ostean (halakorik balego); ondoren, bereizi nahi den lurralde-zatiko hautesleen iritzi ez-loteslea jasoko da; eta, azkenik, 11. artikuluan zerrendatutako agiriez osatutako espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko zaio, behin betiko ebatz dezan.

- Aurreko guztia kontuan hartuta, eta espedientean jasotako aurrekariak, egindako azterlan teknikoak eta aplikatu beharreko araubide juridikoa aztertu ondoren, ez da antzematen legezko eragozpenik Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko iniciativa de promover la modificación del término municipal, siendo este acuerdo equivalente a la aprobación inicial, podrá iniciarse el trámite de información pública del expediente.

Esta aprobación inicial no supone la aprobación definitiva de la modificación del término municipal, sino que tiene como consecuencia la continuación de la tramitación del expediente, y el paso al trámite de información pública previsto en el artículo 8.2.b).

- Así, una vez adoptada la iniciativa municipal por el Pleno y aprobado inicialmente el expediente, el expediente formalizado deberá ser sometido a información pública durante un plazo no inferior a treinta días, en los términos establecidos en el artículo 8.2.b) de la Norma Foral 2/2003. Finalizado el período de información pública, el procedimiento continuará con los trámites previstos en el artículo 8.2.c), d) y e): los ayuntamientos afectados resolverán sobre la procedencia o no de la modificación del término municipal (acuerdo municipal definitivo o final), una vez resueltas, en su caso, las reclamaciones presentadas durante el período de información pública; se recabará, a continuación, la opinión no vinculante de los/as electores/as de la parte territorial que se pretende segregar; y, finalmente, se remitirá el expediente integrado por la documentación relacionada en el artículo 11 a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su resolución definitiva.

- A la vista de todo lo anterior, y una vez analizados los antecedentes obrantes en el expediente, los estudios técnicos realizados y el régimen jurídico aplicable, no se aprecia impedimento legal alguno para que el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa adopte la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal de Tolosa, para la segregación de Bedaio, y su incorporación al municipio de Amezketa, así como la aprobación inicial del expediente y de la documentación que lo conforma, y acordar el inicio del trámite de información pública, de conformidad con lo

udal-ekimena har dezan, espedienteari eta hura osatzen duen dokumentazioari hasierako onarpena eman diezaion eta jendaurreko erakustaldiaren izapidea abiaraztea erabaki dezan, 2/2003 Foru Arauaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, Idazkari honek aldeko txostena ematen dio udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzeko, espedienteari hasierako onarpena emateko eta jendaurreko erakustaldiaren izapidea abiarazteko.

Beraz, **PROPOSATZEN DA**:

Lehenengoa. Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzea, Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 8.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Udal-ekimena Tolosako Udalak berak hartzen duenez, eta 2/2003 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluan aurreikusitako hasierako erabaki bereizia beharrezkoa ez denez, udal-barrutiaren aldaketarako espedienteari eta une honetan hura osatzen duen dokumentazioari hasierako onarpena ematea.

Hasierako onarpenaren xede den dokumentazioa honako hau da:

Bedaio auzoa Tolosatik bereiztu eta Amezketara eransteko prozesuaren justifikazio txostena.

Hirugarrena. Aurreko erabakien ondorioz, formalizatutako espedientea jendaurrean jartzea gutxienez hogeita hamar egunez, 2/2003 Foru Arauaren 8.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokion iragarkia udaletxeko iragarki-taulan, udalaren webgunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

establecido en el artículo 8 de la Norma Foral 2/2003.

En consecuencia, esta Secretaría informa favorablemente la adopción de la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal, la aprobación inicial del expediente, y el inicio del trámite de información pública.

Por tanto, **SE PROPONE:**

Primero. Adoptar la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal para segregar Bedaio del municipio de Tolosa, y su incorporación al municipio de Amezketa, de conformidad con lo establecido en el artículo 8.1.b) de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de los Términos Municipales de Gipuzkoa.

Segundo. Dado que la iniciativa municipal es asumida por el propio Ayuntamiento de Tolosa, sin que sea necesario el pronunciamiento inicial diferenciado previsto en el artículo 8.2.a) de la Norma Foral 2/2003, aprobar inicialmente el expediente de modificación del término municipal y la documentación que en este momento lo conforma.

La documentación objeto de aprobación inicial es la siguiente:

Informe justificativo del proceso de segregación del barrio de Bedaio de Tolosa, y su incorporación a Amezketa.

Tercero. Exponer al público, como consecuencia de los acuerdos anteriores, el expediente formalizado durante un plazo no inferior a treinta días, de conformidad con lo establecido en el artículo 8.2.b) de la Norma Foral 2/2003, mediante la publicación del correspondiente anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en la página web del Ayuntamiento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en, al menos, uno de los periódicos de mayor difusión en el municipio, a fin de que

eta, gutxienez, udalerrian zabalkunderik handienekoa den egunkarietako batean argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Laugarrena. Jendaurreko erakustaldiaren epea amaitutakoan, espedientearen izapidetzearekin jarraitzea 2/2003 Foru Arauaren 8.2.c), d) eta e) artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzorde Informatiboak, 2026ko irailaren 16an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez , Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.

I R I Z P E N A

Lehenengoa. Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal-barrutiaren aldaketa sustatzeko udal-ekimena hartzea, Gipuzkoako udal-barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 8.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Udal-ekimena Tolosako Udalak berak hartzen duenez, eta 2/2003 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluan aurreikusitako hasierako erabaki bereizia beharrezkoa ez denez, udal-barrutiaren aldaketarako espedienteari eta une honetan hura osatzen cualquier interesado/a pueda examinar el expediente y formular las reclamaciones que estime oportunas.

Cuarto. Finalizado el periodo de información pública, continuar la tramitación del expediente de acuerdo con lo establecido en el artículo 8.2.c), d) y e) de la Norma Foral 2/2003.

En virtud de todo lo anterior, la Comisión Informativa de Organización del Ayuntamiento de tolosa, en sesión celebrada el día 16 de septiembre de 2026, ha analizado y votado la propuesta de dictamen. El resultado de la votación ha sido el siguiente:

Votos a favor: Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa y Jose Maria Villanueva Telleria.

Por tanto, la Comisión, por unanimidad, propone al Pleno la aprobación del siguiente

D I C T A M E N

Primero. Adoptar la iniciativa municipal para promover la modificación del término municipal para segregar Bedaio del municipio de Tolosa, y su incorporación al municipio de Amezketa, de conformidad con lo establecido en el artículo 8.1.b) de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de los Términos Municipales de Gipuzkoa.

Segundo. Dado que la iniciativa municipal es asumida por el propio Ayuntamiento de Tolosa, sin que sea necesario el pronunciamiento inicial diferenciado previsto en el artículo 8.2.a) de la Norma Foral 2/2003, aprobar inicialmente el expediente de modificación del término municipal y la documentación que en este momento lo conforma.

duen dokumentazioari hasierako onarpena ematea.

Hasierako onarpenaren xede den dokumentazioa honako hau da:

Bedaio auzoa Tolosatik bereiztu eta Amezketara eransteko prozesuaren justifikazio txostena.

Hirugarrena. Aurreko erabakien ondorioz, formalizatutako espedientea jendaurrean jartzea gutxienez hogeita hamar egunez, 2/2003 Foru Arauaren 8.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokion iragarkia udaletxeko iragarki-taulan, udalaren webgunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta, gutxienez, udalerrian zabalkunderik handienekoa den egunkarietako batean argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Laugarrena. Jendaurreko erakustaldiaren epea amaitutakoan, espedientearen izapidetzearekin jarraitzea 2/2003 Foru Arauaren 8.2.c), d) eta e) artikuluetan ezarritakoaren arabera.

La documentación objeto de aprobación inicial es la siguiente:

Informe justificativo del proceso de segregación del barrio de Bedaio de Tolosa, y su incorporación a Amezketa.

Tercero. Exponer al público, como consecuencia de los acuerdos anteriores, el expediente formalizado durante un plazo no inferior a treinta días, de conformidad con lo establecido en el artículo 8.2.b) de la Norma Foral 2/2003, mediante la publicación del correspondiente anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en la página web del Ayuntamiento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en, al menos, uno de los periódicos de mayor difusión en el municipio, a fin de que cualquier interesado/a pueda examinar el expediente y formular las reclamaciones que estime oportunas.

Cuarto. Finalizado el periodo de información pública, continuar la tramitación del expediente de acuerdo con lo establecido en el artículo 8.2.c), d) y e) de la Norma Foral 2/2003.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

El resultado de la votación del Pleno de la Corporación ha sido el siguiente:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Xarles Iturbe Pasaban, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria

Votos a favor: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Xarles Iturbe Pasaban, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde,Maria Leire

Leire Zubeldia Rezola, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Zubeldia Rezola, Iker Uson Gonzalez y Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, Bedaio Tolosako udalerritik bereizi eta Amezketako udalerriari eransteko udal barrutiaren aldaketa onartu du.

Por lo tanto, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, ha aprobado la modificación del término municipal para la segregación de Bedaio del municipio de Tolosa y su incorporación al municipio de Amezketa

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatuaren onespenarekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, con el visto bueno de la concejala delegada del Ámbito de Trabajo de Organización, en Tolosa, a la fecha de su firma.